

ESKABIDEA

3

**DIRU-LAGUNTZAREN ESKABIDEA
EKINTZAILEEI LAGUNTZEKO DIRU-
LAGUNTZEN DEIALDIA,
EKINTZAILETZAKO TOKI-
PROIEKTUEN ESPARRUAN**

Urtea: 2018

III. ERANSKINA

ESKATZAILEA:

SARRERA ERREGISTROA

LURRALDE HISTORIKOA

ARABA	01	
GIPUZKOA	20	
BIZKAIA	48	

ESPEDIENTE-ZENBAKIA

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Epea 7 egun baliodunekoa da, laguntza-prozesua hasten den egunaren biharamunetik aurrera kontaktzen hasita.

AURKEZTEKO LEKUA

- **LANBIDEK BAIMENDUTAKO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK EKINTZAILEAREN LAGUNTZA- EDO TUTORETZA-LANAK EGITEKO**

Horrez gain, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan xedatutako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

DATUEN BABESA

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2016ko apirilaren 27an eman zuen Europar Batasuneko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeri buruzko datuak ezartzen dituen (DBEO), eta datuen babesaren esparruan betetzekoak diren gainerako arauak betetzeko, jakinarazten da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua dela tratamenduaren arduraduna, eta xede hauek betetzeko erabiliko dituela deialdi honetan arautzen diren diru-laguntzen eskabideak betetzen direnean eskuratuko dituen datu pertsonalak: deialdian arautzen diren diru-laguntzak kudeatzeko eta kontrolatzeko; beste administrazio eskudun batzuekin elkarlanean aritzeko eta koordinatzeko, Lanbideren zerbitzuak eskatzen dituzten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea erdiesteko; iruzurren aurka egiteko; eta estatistikak egiteko.

Datuen tratamendua egiten da tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion lege-eginbearra betetzeko (DBEO, 6.1.c art.), eta botere publikoen izenean burututako eginkizunak betetzeko (DBEO, 6.1.e art.).

Datu pertsonalak eskuratzen dituenean, erakunde eskatzaileak horiek nola tratatuko dituen jakinarazi behar die datu pertsonal horien titularrei.

Indarreko arauak agintzen dutena aintzat hartuta, datuak irispidean izateko, zuzentzeko, ezabatzeko eta transferitzeko eskubideak egikari ditzakete interesdunek, bai eta datuak tratatuak izateko muga ezartzeko eta haien aurka egiteko eskubidea ere. Horretarako, idazki bat igorri beharko dute Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura (Jose Atxotegi kalea 1, 01009 Vitoria-Gasteiz).

Datuen babesari buruzko informazio gehiago eta xeheagoa kontsulta daiteke Lanbideren web-orrian: http://www.lanbide.euskadi.eus/general/-/informacion/condiciones_de_uso_y_politica_de_privacidad/.

III. ERANSKINA.

EKINTZAILEEI LAGUNTZEKO DIRU-LAGUNTZAK, EKINTZAILETZAKO TOKI-PROIEKTUEN ESPARRUAN

"X" batez markatu zer eskatzen den.

	II. KAPITULUA – ENPRESA-IDEIA BAT GARATZEKO LAGUNTZAK
	III. KAPITULUA – ENPRESA-JARDUERA BERRIAK ABIAN JARTZEKO LAGUNTZAK

I.- ESKATZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA

Izen-abizenak	NANa
---------------	------

Adina	Ikasketa-maila	Batxilergotik beherakoak		Batxilergoa		Erdi-mailako LH	
		Goi-mailako LH		Unibertsitatekoak			

Helbidea		Udalerria	
Probintzia		Posta-kodea	
Tel.		Helbide elektronikoa	

II.- ERAKUNDE LAGUNTZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA

Erakunde laguntzailearen izena					
Titular juridikoa				IFK/IFZ	
Erakundearen helbidea			Tel.	Faxa	
Udalerria		Probintzia		Helbide elektron.	

III.- LAGUNTZA-PROZESUA HASTEKO ETA ESKABIDEA AURKEZTEKO UNEAN ESKATZAILEAK BETE BEHAR DITUEN BETEKIZUNAK

- EAEn bizitzea eta bertan erroldatuta egotea.
- Langabezian egotea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaile gisa izena emanda egotea.
- Lanbidek baimendutako erakunde laguntzaile baten aholkularitza eta laguntza jasotzeko prozesu batean sartuta egotea.
- Aurreko urtean alta emanda ez egotea ekonomia-jardueren gaineko zergan, ez eta Langile Autonomoen Araubide Berezian ere.
- Ideia bat izatea enpresa- edo negozio-proiektu bat garatzeko edozein jarduera-arlotan. (*)
- Enpresa edo negozio berri bat ezartzeko bideragarritasun-plana izatea. (**).
- Aurreko deialdietan, Lanbidek ekintzaileei laguntzeko egin dituen deialdietan enpresa-ideia bat garatzeko jasota dauden laguntzen onuradun ez izatea (*).
- Aurreko deialdietan, Lanbidek ekintzaileei laguntzeko egin dituen deialdietan jarduera berria abian jartzeko jasota dauden laguntzen onuradun ez izatea.

Gurutze batez markatu behar dira betetzen diren betekizunak.

(*) **Ideia bat garatzeko** diru-laguntza eskatzen bada bakarrik.

(**) **Jarduera berri bat abian jartzeko** diru-laguntza eskatzen bada bakarrik.

IV.- ESKATZAILEAK HARTZEN DITUEN KONPROMISOAK

- Bere jarduera bakarra enpresa edo negozioa abian jartzea edo enpresa-ideia garatzea eta egituratzea izatea.
- Deialdi honen kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek enpresa edo negozioa ezartzeko edo enpresa-ideia garatzeko antolatzen dituzten aholkularitza- edo laguntza-ekintza guztietan parte hartzea.
- Beste administrazio batzuetatik edo erakunde publiko zein pribatuetatik eskabide hau egin eta gero lortutako diru-laguntzen berri ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari, baita diruz lagundutako jardueren helburuari edo izaerari funtsean eragiten dion beste edozein egoeraren berri ere.
- Egindako jarduerak zehazten dituen azken memoria bat aurkeztea erakunde laguntzaileari, laguntza-prozesua amaitu ondoren eta deialdian ezarritako epean. Erakunde laguntzaileak baliozkotzat jo beharko du memoria hori, eta memoriaren edukiak lan-plangintzaren eta lortutako emaitzen jarraipena egitea ahalbidetu beharko du.
- Ekonomia-jardueren gaineko zergan alta ematea, negozioa abian jartzeko tutoretza- eta laguntza-prozesua amaitzen denetik 3 hilabeteko epean gehienez ere. (Jarduera berri bat abian jartzeko kasuan soilik, III. kapitulua)

V.- ESKATZAILEAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

- Ez dut jaso helburu berbererako inolako laguntzarik administrazio publikoetatik.
- Ez dut jaso zigor- edo administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorrak, ezta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera edo Emakumeen eta Gizonen Benetako Berdintasunerako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barnean direla.
- Ez nago itzultzeko edo zehatzeko inongo prozeduraren eraginpean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo diru-laguntzaren bat dela-eta.
- Ez daukat ordaindu gabeko itzultzeko betebeharrak diru-laguntzen arloan.
- Ez nago Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurrez ikusitako gainerako egoeren eraginpean, diru-laguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez.
- Eskaeran aurkeztutako dokumentuak eta datuak egiazkoak dira.
- Deialdian eskatutako baldintza guztiak betetzen ditut.

Gurutze batez markatu behar da dagokiona.

VI.- ESKABIDE HONEKIN BATERA AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIEN ZERRENDA

- ❖ Eskatzailearen NANaren fotokopia.
- ❖ Eskatzailearen erroldatze-agiriaren fotokopia edo erroldako datuak elektronikoki egiaztatzeko baimena.
- ❖ Lan-bizitzari buruzko txostena, laguntza-prozesuaren hasiera-datan eguneratuta.
- ❖ Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta daukatela egiaztatzen duten ziurtagiriak.

VII.- DATUAK ELEKTRONIKOKI EGIAZTATZEKO BAIMENA

Baimena ematen diot Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erakunde laguntzaileari nire errolda-datuak elektronikoki egiazta ditzan.

BAI EZ

(Ez bada baimenik ematen, erroldatze-ziurtagiria aurkeztu beharko da).

**VIII.- TUTORETZAREN HASIERA-DATA ETA GARATU BEHARREKO ENPRESA-IDEIA EDO -PROIEKTUAREN
DESKRIBAPENA**

Tutoretza/laguntza ematen hasteko
data:

Enpresa-idea edo -proiektuaren deskribapena:

IX.- ESKATZAILEAREN SINADURA

Laguntzen deialdi honetan sar nazatela eskatzen dut, eta dagokion diru-laguntza eman diezadatela.

.....,(e)koaren(a).

Sinadura (izen-abizenak)